

## AURKEZPENA

Gu MLN taldea gara eta eskaintzen dugun proiektua gure herriarentzat energia lortzen duen gimnasio bat sortzea da. Gure ideia herriko gimnasioaren erabilera handiarengatik dator, ikusten dugulako gure inguruko jendeak asko erabiltzen duela gimnasioa. Horrela, gure herrian elektrizitatean gastatzen den dirua sahiestea izango litzateke helburua. Jendearen kondizio fisikoa asetzeaz gain, elektrizitatean oinarritzen diren gastuak murriztea lortuko genuke.

Ideia hau gure inguruko pertsona batengandik dator, lagun honek bere aisialdian gimnasia joatea gustuko du bere gorputza lantzeko eta osasuntsu mantentzeko. Gainera, elektrizitateari buruzko erdi mailako gradu bat egiten ari da, hau da, ezagutza handia du gure proiektuaren atal askotan. Egun batean berarekin hitz egiten atera zen ideia hau eta espero dugu aurrera eraman ahal izatea.

Mirene Idiakez, Miren Arsuaga, Lina Amry, Naroa Elozegi eta Nagore Gurrutxaga gara, Urretxu-Zumarraga Lizeoko lehenengo batxilergoko ikasleak. Gure ideiak arrakasta izatea espero dugu, pertsonaren eta herriaren ongizatea bilatzen dugulako.

